



TXIKITTO!

2022ko ekaina 209. zenbakia



BADATOS SANJUANAK!!!

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	DENBORAPASAK	11-13
IKASLEEKIN	4-5	LEHIAKETA	13
BERRIKETAN		ZER IRAKURRI	14
IKASTETXEETAKO.....	6-7	BITXIKERIAK	
BERRIAK		IPUINA	15
AITXITXA-AMAMEKIN. .	8-9	ZU BAI MARGOLARI...	16
BERBETAN			
SANJUANAK	10		

 **eta kitto!**
euskara elkarteak

Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarteak
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Silbia Hernandez

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





Turista bat Bilboko udaletxe inguruan dabil,
hegan dabiltzan usoei begira. Bat-batean, blaus!
Goitik zerbait erori eta prakak zikintzen zaizkio.
- Bufaaaa, eskerrak behiek ez duten hegan egiten!



Ama batek semeari:

- Zer irakurri duzu eskolan?
- Nik bikain irakurri dut -semeak erantzun.
- Pozten naiz, seme.
- Ba eskerrak, andereñok oso gaizki irakurri dudala esan dit.
- Baina, bikain irakurri duzula esan didazu...
- Bai, nik "bikain" hitza irakurri dut.

Lehen aldiz eskolara joan den alabari aitak galdetzen dio:

- Asko ikasi duzu?
- Ez, aita. Maisuak bihar ere joan behar dudala esan dit.



Zer gertatuko litzateke ilargiak asko jango balu?
Ilargi betea bihurtuko zela.

Asto bat taberna batean sartzan da eta Coca Cola bat
edaten du. Bezero batek esaten dio bere lagunari:

- Ikusi duzu hori?!!
- Baaaaiiii, ordaindu gabe joan da!!!





Ikasturteko azkeneko proiektuan... ...kirola hizpide



BIDEOA



Ikasturte amaierarako San Andres ikastetxeko 4. mailako ikasleek azkeneko proiekturako aukeratu duten gaia kirola izan da. Ikasle horietako seirekin elkartu gara eta euren ahotsetatik jakin dugu proiektua zertan datzan.

EKHI CASTRO,
10 URTE



Azkeneko proiektua aukeratzeko ikasle bakoitzak bere nahia azaldu zuen. Azkenean, bi gelen artean proiektu berria atera zen: kirola. Nondik nora joan jakiteko geletan kontzeptu-mapa osatu genuen. Gure interesa, ikasi nahi genuena eta abar azaldu genuen. Proiektuen hasieran pelikula bat ikusten dugu. Oraingoan “Campeones” ikusi dugu, denok kirola egiteko gai garela eta txapeldun izateko modu asko daudela ulertzeko.

MAITANE PILOZO,
10 URTE



Horrekin batera, eta gaian sartzeko, gure gelak eta ingurua dekoratzen ditugu, girotzeko. Alde batetik, gela barruan gaiarekin lotutako marrazkiak prestatu eta itsatsi ditugu. Kanpoaldea, berriz, kirolarien siluetekin apaindu dugu. Talde bakoitzari kirol bat egokitu zaio eta kide baten silueta egin du postura adierazgarri bat erabiliz. Silueta horiek barrutik nola bete pentsatu behar izan dugu eta kolorea eta bolumenta ematea bururatu zaigu. Horretarako koloretako paperetan formak moztu ditugu, hauen simetria eta txantiloak eginez.



NORA TERUELO,
9 URTE

Ateetan estadio olinpikoaren sarrera egin dugu. Alde batean antzinako Greziako estadioa irudikatu dugu, baina barruan atletismoko pista bat jarri dugu. Beste aldean antortxa eramaten kirolari paralinpikoaren silueta egin dugu. Siluetak egitea ez da batere erraza izan. Lehenengo talde bakoitzak bere kirolaren postura edo silueta bilatu behar zuen, ondoren postura imitatu eta azkenean lurrean, paperaren gainean etzan eta marraztu. Kirolari paralinpikoaren kasuan zailagoa izan da ez zelako silueta egin behar bakarrik, gainera hanken ordeztokiak marraztu behar genituen. Eskerrak artistak ditugun!



ANER LOPEZ,
10 URTE

Kirola osasungarria da eta gorputza zaintzen laguntzen digu, baina hori ulertzeko gorputzari buruz zertxobait jakin behar dugu, hau da, gure hezurak eta muskuluak zeintzuk diren eta zertarako balio duten. Bideoak ikusi eta marrazkietan hezur eta giharren izenak idatzi eta beso artikulatu bat egin dugu mugimendua ulertzeko. Oso dibertigarria izan da eta oso ondo pasatu dugu. Gauza berri asko ikasi ditugu gainera.



JULEN GARCIA,
10 URTE

Beste alde batetik, fisioterapeuta bat gonbidatu dugu gelara. Fisioterapeutak adituak dira gizakiaren gorputzean. Gauza asko ikasi ditugu, lehendik ezagutzen ez genituen asko. Esate baterako, lokomozioan gorputz osoak hartzen duela parte ikasi dugu, ez bakarrik hezurrek eta gigarrek, zati bakoitzak bere garrantzia dauka: giltzadurak, tendoiak, lotailuak, baina baita zirkulazio-aparatuak, arnas-aparatuak eta nerbio-sistemak ere.



JADYA AHMED,
9 URTE

Kirol motak aztertu eta sailkatu ditugu. Gero talde bakoitzak kirol bat aukeratu eta nola jolasten den idatzi du. Hori egin ostean kirolarien inguruan egin dugu lan eta talde bakoitzak landutako kirolaren ordezkari baten biografia osatu du. Talde bakoitzean mutil bat eta neska bat aukeratu dute, kirolean ere neskek eta mutilek berdin-berdin dihardugu-eta. Oso gustora hartu dut parte proiektu honetan, ondo pasatu dugu eta horrekin batera gauza mordo bat ikasi ditugu.



ARRATEKO ANDRA MARI

Maiatzean, 2. mailako Super Akeek diploma jaso zuten; 3., 4., 5. eta 6. mailakoak Donostiako Kutxa Espaziora eta izotz-pistara joan ziren eta LH 1. eta 2. mailakoak Azpeitiko Ekogunera. Agenda 30 dela eta udal plenoan izan ginen “lehorreko bizitzaren” inguruan ateratako proposamenak eta konpromisoak aurkezten. Azkeneko egunean, ikasturtea ongi amaitzeko, dantzalditxoak egin genuen, San Juan su eta guzti, eta 6. mailako ikasleak agurtu genituen. Musu potoloak ikastetxeko denon partetik eta zorte on hasiko duzuen etapa berri horretan!!!



LA SALLE

Kurtsoa bukatzen ari da eta ekintza ugari izan ditugu azken egunetan. HHkoak Debara, San Pedrora eta Barriara joan dira. LHkoak, berriz, San Pedrora oinez. Karpinera animaliak ikustera, Lasturrera lo egitera, bertsolaritza-saioa Coliseon, Oriotik Zarautzera menditik, Irisarrilanderara lo egitera eta primeran pasatzera... Beroarekin batera oporrak hartzeko desiatzen gaude denok! Ondo pasa!

ALDATZE

Ekaina hasieran Aldatzeko LH osoko ikasleak Unibertsitate Laboraleko areto nagusian izan ziren 6. mailakoen antzerkiak ikusten. Urte osoan zehar prestatu eta landu ondoren, bi antzezlan oso dibertigarri interpretatu zituzten eskolakideen eta euren gurasoen aurrean. Lehenengoa ingelesez, “Gaztetxea edo Gazta Etxean” izenburuarekin eta ondoren, euskaraz “Gaixo” izenburuarekin. Lan bikaina!





URKIZU

Urkizu eskolan gauza pila bat egin ditugu azkeneko asteetan: Coliseon euskarazko filmak ikusi, martxoaren 8a ere gogotsu ospatu genuen, Piraten Etxera egindako bidaia ahaztezina izan zen, eta “Alpistegia” izeneko ikuskizunarekin asko disfrutatu genuen. Bestalde, lehenengo aldiz Homotransfobiaren aurkako eguna ospatu genuen eskolan, eta 3. ziklokoek sexualitate-tailerrak egin dituzte. Ekaina hasieran 2., 3., eta 4. mailakoak Debara joan ziren.



ITURBURU

Aste Santuko oporren ondoren, apirilaren 25ean, “Gaur be euskaraz” eguna ospatu genuen Iturburuan. Errelebolasterketak egin genituen eta denbora luzez izandako murrizketa-neurririk gabe, ez distantzia, ez musuko... Denak elkarrekin egon ahal izatea zoragarria izan zen! Oporrak hartu aurretik irteera pila bat egin ditugu eta amaiera biribila emateko... Olinpiadak! Eguraldia lagun zoragarri pasa genuen, apar-festa eta guzti!



AMAÑA

Badator, badator, badator... ikasturte amaiera! Ekainaren 3an eskolako jaialdia ospatu genuen, Unibertsitate Laboraleko aretoa dantza eta musikaz alaituz. A ze eritmoa erakutsi zuten gure haurrek! Gurasoak ere pozik euren haurrak ikusiz. Giro ezin hobean igaro genuen arratsaldea, une hunkigarriak ere bizi izan genituen LH6ko ikasleei agurra egiterako orduan. Aupa Amañako artistak! Dena dela ere, ikasturteari amaiera emateko ekainaren 17an gurasoek antolatutako jaia izan genuen eskolan: puzgarriak, tailerrak, jolasak... Eskerrik asko zuen lanagatik!



SAN ANDRES

Maiatzaren 17an, lesbianek, homosexualek, bisexualek eta transexualek jasaten dituzten diskriminazioa salatzen eta mundu osoan haien eskubideen alde egiteko, eskolako ikasle denak elkarturik aldarrikapen eguna ospatu genuen. Ikasturtea ere amaitzeaz da eta oporrak hartzeko desiatzen gaude San Andres ikastetxeko denak. Ondo ondo amaitu, deskantsatu eta gozatu oporretan! Bueltan berriz ere ikusiko dugu elkar.





Rosario Urkia: «Kotxerik ez zegoenean astoan ibiltzen ginen»

Rosario Urkia Eibarren jaio zen, 1943. urteko uztailaren 22an. Laster beteko ditu, beraz, 79 urte. Oihane eta Amets biloba bikiek ondorengo lerrootan duzuen elkarrizketa egin diote amamari.

- **Kaixo, amama, zer moduz?**

Ni oso ondo, pozik nago elkarrizketa egingo didazuelako baina pixkat urduri ere bai.

- **Eibarren jaio zinen, baina non?**

Baserrian jaio nintzen, Lazareto baserrian, Arrateballen, eta bertan bizi izan naiz beti.

- **Zenbat urte ditu baserriak?**

Urte asko. 1899. urtean Eibarko Udalak lursail bat erosi zuen bertan ospitale bat egiteko. 1940an ospitale hartan obrak egin zituzten eta baserri bihurtu zen. Urte hartan Juan Urkia eta Maria Luisa Lasuen bost seme-alabarekin baserri hartara joan ziren bizitzera. Handik hiru urtera jaio nintzen ni, gazteena.

- **Abererik izan duzue inoiz?**

Gaur egun untxiak, ahuntzak, oiloak eta poni bat ditugu. Garai batean behiak, txahalak eta astoa ere izan genituen.

- **Nola gogoratzen dituzu eskolako urteak?**

Maltzagako eskolara joaten ginen mordo bat ume, neskak eta mutilak elkarrekin. Han elkar-tzen ginen denak, 6 urtekoak eta 14 urtekoak, danak elkarrekin. Orduan horrela zen. Oso oroitzapen onak ditut eskolatik, oso ondo pa-



satu nuen. Andereñoen izena ere gogoratzen dut, Maria Antonia deitzen zen.

- **Oporretan nonbaitera joaten zineten?**

Ez, baserrian egoten ginen. Baserriak lan asko eskatzen du eta lan asko egiten genuen bertan. Gazteena izanda ere ez nintzen libratu!

- **Noiz sartu zen zuen etxean lehenengo kotxea?**

1978an.

- **Eta ordura arte nola konpontzen zineten?**

Astoarekin konpontzen ginen (barreak). Amari laguntzen nion; astoa hartu eta ezagunen etxera jaisten ginen, arrautzak, esnea eta barazkiak saltzera.



Sei anai-arreben artean gazteena da Rosario.



Lazareto baserrian jaio eta bertan bizi izan da beti.

- Zein izan da zure ustez azken urteotako asma-kizunik onena?

Labadora. Asko erraztu digu bizitza. Egin kontu; lehen arropak labaderoan garbitzen genituen, eskuz. Xaboa eman, ureztatu eta bihurtu. Neguan suaren ondoan jartzen genuen arropa, bizkorrago lehertzeko.

- Eta zer moduz konpontzen zara teknologia berriekin?

Telefonoa da erabiltzen dudana bakarra, eta beno, pixkanaka banoa ikasten. Zuen aitxitzak eta Ametsek asko erakusten didate.

- Urte hauetan zertan aldatu da gehienbat Eibar?

Lehen lantegi ugari zeuden, bata bestearen aldamenean. Kanpora joan dira gehienak, eta gaur egun ez dago ia lantegirik herrian.

- Eta zeren falta somatzen duzu?

Neskatoa nintzenez grabatzaile moduan egin nuen lan. Etxe batera joan nintzen ikastera eta gero urteetan lantegi batean egin nuen lan, eskopetak grabatzen. Gero ezkondu egin nintzen

eta ez nuen etxetik kanpora gehiago lanik egin. Horren falta igartzen dut.

- Ezkondu eta gero zergatik utzi zenuen lana?

Lehen horrela zen. Ezkondu eta gero emakumea etxean gelditzen zen, etxearen eta seme-alaben kargura.

- Eta uste duzu emakume eta gizonen arteko berdintasunean zeozer aurreratu dugula?

Pentsatzen dut baietz. Gure etxean, adibidez, sei anai-arreba ginen, hiru neska eta hiru mutil. Mutilek ez zuten etxean ezer egiten. Zergatik? Mutilak zirelako. Gaur egun gauzak asko aldatu dira baina oraindik ere badago zer eginik.

- Zeintzuk dira baserrian bizitzearen alde onak eta txarrak?

Onak besterik ez dizkiot ikusten. Egia da kalean ez naizela sekula bizi izan.

- Eta gustatuko litzaizuke kalean bizitzea?

Probatzearren bai. Baina senarrak ez du nahi. Valladolidetik etorri zen eta ni baino hobeto moldatu zen baserriko bizimodura (barreak).



Gozamenez betetako sanjuanak badatoz!

Aurten bai, aurten bai! Zenbat aldiz errepikatu dugu azkeneko asteotan esaldi hori? Askotan, ezta? Arrazoi guztiarekin. Eskolako oporrekin batera eibartarrok horrenbeste maite ditugun San Juan jaiak gainean ditugu, eta, aurten, normaltasunez ospatu ahal izango ditugu. Gozatu jaietan eta ondo pasa oporretan!



Egitaraua

Ekainak 22, asteazkena:

- 17:00etatik 20:00etara: **Puzgarriak** Untzagan.
- 19:00etan: **“Petitxou” antzezlana** Gari, Mon-txo eta Jose Lontxo pailazoekin Untzagan.

Ekainak 23, osteguna:

- 12:00etan: Untzagan **kuadrillak** bildu eta Ustekaberekin **kalejira** Urkizuraino.
- 13:00etan: Estaziñon ongietorria **Lizarrako dultzaineroei** eta kalejira Untzagaraino.
- 13:30ean txupinazoa udaletxetik.
- 17:00etatik 20:00etara: **Klarion tailerra** Untzagan.
- 17:30etik 20:30era: **Puzgarriak** Urkizun.
- 19:00etan: Urkizutik Lizarrako **erraldoi** eta **buruhandien** eta **dultzaineroen** kalejira.
- 23:30ean: **San Juan** sua eta **Neledantzaren** emanaldia.
- 00:00etan: **Danborradaren** alardea.

Ekainak 24, ostirala:

- 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara: **“Puck eta haren tropa”** jolas parkea Untzagan.
- 19:00etan: **“Tanque Gurugu”** kale-antzerkia Anbulatoriotik Untzagara.
- 19:00etan: Urkizutik abiatuta **umeen danborrada**.
- 20:30ean: **Umeen pregoia** eta **alardea** Untzagan.
- 22:00etan: **Erromerixa** Untzagan.
- 23:30ean: **Soka Dantza** Untzagan.
- 00:00etan: **Suzko erroberak**.

Ekainak 25, zapatua:

- 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara: **“Tonet gizonaren bidaia bitxia”** jolas parkea Errebal Plazan.
- 17:30etik 20:30era: **Puzgarriak** Urkizun.
- 18:00etan: Urkizutik Bergarako **erraldoiak** eta Lizarrako dultzaineroen kalejira. Untzogatik kalejira **Africa Baj Yay** taldearekin.
- 23:00etan: **Suzko erroberak**.



HIZKI-ZOPA

HIZKI ZOPA: EA AURKITZEN DITUZUN EIBARKO HAMAR KALEREN IZENAK



Amaña, Errebal, Isasi, Txiriokale, Urkizu, Bidebarrieta, Estaziño, Kalbeton, Urki, Urtzaile


7 DESBERDINTASUNAK





EGIN ERAGIKETAK... ETA KOLOREZTATU

- 1 ●
- 2 ●
- 3 ●
- 4 ●
- 5 ●
- 6 ●
- 7 ○
- 8 ●



LABIRINTOA





6 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **UZTAILAK 6** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.




AURREKO ALEKO IRABAZLEA

Aupa MAHDI txapelduna! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ren motxila zuretako! ZORIONAK!

**Goiko amona eta beheko amona 6 urtetik aurrera**

Idazleak bere haurtzaroko oroitzapenei buruz idatzitako lehen liburua dugu. Lan autobiografikoa da, belaunaldien arteko gaiak eta bizitzako oinarriko alderdiei buruz ari dena: nahitasunak, familia, maite ditugun heriotza, etab. Kontakizun samur hau klasiko bihurtu da haur literaturan.

**Aitona Lukasen txabola 8 urtetik aurrera**


Baserria eraitsi zutenez geroztik, aitona txabolan bizi da, eta ez da beste inora joaten. Krispin biloba gonbidatu du gaurkoan. Pozik hartu du gonbidapena, izan ere aitona ez du inoiz presarik izaten, eta berarekin egoteko behar duen denbora hartzen du. Krispinek banan-banan ezagutuko ditu aitona lagunak: Xilbestre armiarma, Margarita ahatea, Clementina sagua eta Pakito barraskiloa.

**Mamuak eta bihotzak 10 urtetik aurrera**

Kalera atera ezinik, Klarisa bere haurtzaroa gogoratzen hasi da. Bihotzeko gaitz batek markatu zion garai hura, baina ez zion eragotzi Parisko kanpoaldeko ospitale zahar bateko korridoretan zebilen mamuaren misterioa ikeretzea. Aldi berean, Klarisaren etxean bertan gertatzen ari diren gorabehera arraro eta enigmatikoen desafio egingo diote K taldearen trebetasunari.

**BITXIKERIAK**

Coca Cola hasiera batean berdea zen.



Behi batek eskailerak igo ditzake baina jaitsi ez.

Ezinezkoa da nork bere ukondoa txupatzea.





Egun batean mendira

Egun batean pertsona bat mendian zegoen ibiltzen. Mendian neska bat aurkitu zuen eta Lur izeneko katu bat ere bai. Bapatean lurjauzi bat gertatu zen eta hiru lagunak korrika itzuli behar izan ziren etxera.

Laia Santamaria



Ayoub mendian



Egun batean Ayoub mendira joan zen laguntxo batekin. Liburua eramane zuen irakurtzeko eta akanpada egiteko asmoarekin joan ziren. Joan ziren euren hamaiketakoaren bila, kanpindandan laga zuten-eta. Baina galdu egin ziren, baso baten barrena sartu zirelako. Baina zorionez Ayoubek mapa bat eramane zuen eta horri esker aurkitu zuten kotxea. Azkenean etxera joan ziren.

ZU BAI MARGOLARI!

